



**Ikastegia:** UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskola

**Titulua:** Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

**Jardueraren izena:** "*Gazteriari begirako lanari, enpleguari eta lan-harremanei buruzko praktika*"

**Arduraduna:** Javier Cerrato Allende

## **1. JARDUERAREN BEHARRA ETA ZEIN TALDERENTZAT DEN:**

Bigarren Hezkuntzako ikasleei unibertsitate-munduko errealitatea ezagutarazteko asmoz eta irakasle-orientatzaileen zeregina erraztearren, proiektu honen helburua, hain zuzen, *Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren* gizarte-ezagutza eta -hautematea hobetzeko laguntzea da. Gradu horrek, hain zuzen, lan-mundua aztertzea du xede, bere aldagai historiko-sozialetan, juridiko-ekonomikoetan eta psikologikoetan.

Era horretan, proposatutako jarduerari esker, modu praktikoa, Gradu ikasketen, lan-munduaren eta gazteriaren arteko harremanak ezagutu ahal izango dira.

Horretarako, Graduarekin lotura duten curriculumeko hiru kasu praktikoa egingo dira. Kasu praktikoa bat aurrez aurrekoa izango da, bestea erdi aurrez aurrekoa; azkena, berriz, hirugarrena, dagokion Batxilergoko Ikastetxetik bertatik egin ahal izango da, birtualki.

Aurrez aurreko kasu praktikoa, Justizia Auzitegiko saio baten simulazio-jokoa egingo da; hain justu, greba egiteko dagoen eskubideari buruzkoa. Erdi aurrez aurreko kasua, berriz, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako gaiekin lotutakoa izango da. Kasu birtuala, azkenik, errentaren gaineko zergari buruzkoa. Horren guztiaren oinarrian, praktikak egingo dituzten ikasleen hurbileko eskarmentuak egongo dira. Erdi aurrez aurreko kasuari eta kasu birtualari dagokienez, bestalde, sareko tresnak eskainiko zaizkie ikasleei; eta hartara, aurkezpena, gauzatu beharreko zereginak eta kasua ondo ebazteko beharrezko gidalerroak aurkituko dituzte.

Kontuan hartuta *Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua* diziplina juridiko, ekonomiko eta psikosozialetako ezagutzak uztartzen dituela, proposatutako praktikei esker, lanaren gertakari globala hauteman ahal izango da, gazteriaren hurbileko gogoetak eginda.

Bide beretik, Unibertsitatean Sartzeko Programetan eta institutuek eskatutako informazio-hitzaldietan bildutako kezkei erreparatuta, funtsezkotzat jo da, batetik, tituluan landutako lanbide-gaitasunekin lotutako lanbide-aukerei buruzko orientazioa ematea (tituluaren gaitasun akademikoak eta gizarte-gaitasunak alde batera utzi gabe); eta, bestetik, enpresetan eta bestelako kanpo-entitateetan Lan Harremanen UEtik sustatzen eta kudeatzen diren praktikak eginda gaitasun horien aplikazio-arloari buruz eztabaidatzea.

Azkenik, ekintza horiei guztiei esker, Eskolako beste hainbat jardueraren berri ere eman ahal izango zaie Batxilergoko ikasleei. Hala nola [GAZTELAN](#) aldizkariaren eta lanari, enpleguari eta lan-harremanei buruzko [urteroko idazketa-lehiaketaren](#) berri. Eta baita zientzia-ezagutzen garapena sustatzeko Ikastegiak egiten dituen jardueren, [Lan Harremanei buruzko Lan Harremanak aldizkariaren](#) bitartez gauzatutako jardueren, irakasleen ikerketa-jardueren eta [graduondoko ikasketen eskaintzaren](#) (Master oficalak) berri ere.



## **2. HELBURUAK:**

---

1. Batxilergoko 2. mailako ikasleei lan-munduarekin harremana duten ezagutzen berri ematea; horixe baita, azken batean, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren xedea.
2. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan eskuratzen diren lanbide-gaitasunen garrantziaz jabetzea, etengabe aldatzen ari den gizarte honetan ezinbestekoak baitira.
3. Lan Harremanei eta Giza Baliabideei buruzko ikasketetarako bokazioa edo zaletasuna piztea.
4. Lan Harremanen UEko zientzia-jarduera eta jarduera teknikoa hedatzea.

## **3. LANDUKO DIREN GAIAK, MINTZAGAIK EDO EDUKIAK**

---

Kasu praktikoei esker, honako hauek ezagutuko dituzte ikasleek:

1. Tituluak dituen lanbide-aukerak.
2. Tituluan landuko dituzten gaitasunak.
3. Lan Harremanen UEn kanpo-praktikek duten garrantzia.
4. Tituluarekin eta Ikastegiak zientzia-ezagutza hedatzeko eta garatzeko egiten duen jarduerarekin lotura duten graduondokoak.

## **4. PARTE HARTUKO DUEN IKASLE TALDEAREKIN EGINGO DIREN JARDUERAK**

---

1. Ongietorria eta aurkezpena, Graduaren ezaugarri nagusiei buruzko bideo baten emanaldiaren bitartez. Bertan, Lan Harremanen diploma eskuratu duten ikasleek lan-munduan izandako esperientziak erakutsiko dira (hain justu, hori zen ikasketa hauei zegokien aurreko titulua).
2. Lanbide-aukerari eta Lan Harremanen UEn kanpo-praktikek duten garrantziari buruz egin ohi dituzten galderei erantzungo zaie.
3. Kasu praktikoak egingo dira (aurrez aurrekoa eta erdi aurrez aurrekoa) eta kasu praktiko birtuala aurkeztuko da. Azken horren jarraipena sarean egingo da.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Gradudunen Eskola Ofizialetako baten ordezkariak hitzaldia emango du. Ondoren, jardunaldiaren amaiera eta gogoeta-inkestak.

## **5. HIZKUNTZA**

---

Euskaraz eta gaztelaniaz

## **6. PLAZA KOPURUA**

---

Ikasleak: 30 eta irakasleak: mugarik gabe.

## **7. DATA ETA ORDUTEGIA**

---

Aurrez aurreko jarduerak egun bakarrean egingo dira, goizez: otsailaren 10ean, 9:30etik 13:30era.